

ZARAUZKO UDALEAN ETA UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO ARAUAK EMATEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren arabera, euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza dena, Euskadiko hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezela, eta hiritar guztiek dute euskara ezagutu nahiz erabiltzeko eskubidea, Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunei dagokielarik bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta arautzea, hala nola beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak erabaki eta erregulatzea.

Azaroaren 24eko 10/1982 Oinarrizko Legea aipatu Autonomi Estatutuko 6. artikuluan xedatutakoa garatzera dator, euskararen erabilera arautzen baitu. Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuak, berriz, aipatu Legearen harian, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen ditu.

Administrazio bakoitzari dagokio aipatu arau eta xedapen orokorrak bakoitzak bere iharduketa-eremuan aplikatzea, eta aplikazio horretarako arauak eman eta bitartekoak baliaraztea. Horixe da, hain zuzen ere, Ordenantza honen xedea, hots, indarrean dauden xedapen orokorrak Zarauzko Udalaren iharduketa-eremuan hezurmamitu eta aplika daitezen arauak eman eta bete araztea.

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta gaztelania bezela ofiziala izateaz gain, Euskal Herri osoaren ondare da. Hori horrela, hiritar guztien elementu integratzaile izan behar du, eta Zarauzko auzotar guztientzat hala izan dadin saiatuko da Udala. Beste hitzetan esanda, euskara Zarauzko Udalean eta Udalerrian normaltasunez erabiliko den egiazko komunikabide izan dadin nahi du Udalak, eta horretarako neurri egokiak hartuko ditu.

Indarreango araudiaren eta, halaber, Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarrizko Legeari buruz Auzitegi Konstituzionalak emandako ekainaren

26ko 82/1986 Epaiaren arabera, hiritarrek hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten eskubidea bermatzea, eta aipatutako hizkuntzen ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzea dagokie botere publikoei. Zarauzko Udalak bere gain hartzen du erantzukizun hori. Hortaz, Udalaren barne funtzionamenduan nahiz Udalaren eta herritarren arteko harremanetan, hala nola Udalerriko bizitza sozialean, euskararen erabilpena normalizatzeko Udalak burutuko duen jardunerako arau-esparrua definitzen da Ordenantza honen eskutik.

I. KAPITULUA

Xedapen Orokorrak

1. artikulua

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza dena, Zarauzko Udaleko eta Udalerriko hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezela.

2. artikulua

Zarauzko Udalaren hizkuntza, orohar, euskara izango da, ondoko artikuluetatik ondorioztatzen diren berezitasunak kontutan harturik.

3. artikulua

Euskararen normalkuntza osoa lortzeko xedez, eta Zarauzko euskaldunen portzentai altu eta hazkorra (68,28) kontutan hartuz, lehenetasunezko tratamendu berezia emango dio Zarauzko Udalak euskarari.

4. artikulua

Euskal Herriko hiritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ezezik erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz, Zarauzko Udalak, indarreango legeriak orohar onartutakoaren ildotik, honako hizkuntz eskubideak aitortzen dizkie espresuki hiritarrei:

- a) Udalarekin eta bere menpeko organismo ororekin ahozko edo/eta idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- b) Udalak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketa oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- c) Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro, gutxienez euskaraz hartzeko eskubidea.
- d) Udaleko edozein jardueratan euskaraz jarduteko eskubidea.

II. KAPITULUA

Aplikazio esparrua

5. artikulua

Zarauzko Udal administrazioaren eta bere menpe dauden erakundeen euskararen eta gaztelaniaren erabilera, Ordenantza hauek ezartzen dituen xedapenek arautuko dute.

III. KAPITULUA

Barne erabilera

6. artikulua

Izaera administratiboko barne jarduerak orohar euskaraz egingo dira. Dena den, Zarauzko Udalak euskara hutsezko jarduna bultzatuko du.

7. artikulua

Zarauzko Udaleko organu ezberdinek erabilitako barne-inprimaki guztiak euskaraz burutuko dira. Euskarari lehentasuna ematen dion bertsio elebidunak interesatuen esku egongo dira.

8. artikulua

1. Bulego eta langoletako errotuluak eta gainerako mota bereko adierazleak, euskaraz egingo dira.
2. Paperen idazpuruak, gomazko zigiluak, tinbre zigiluak eta antzeko beste inprimakiak euskaraz egingo dira.

9. artikulua

Idazmakina, ordenagailuak, hauen inprimagailu eta programak eta Zarauzko Udaletxean erabiltzeko eskuratutako materiala euskaraz funtzionatzeko egokitua izan dadin saiatuko da Udala.

IV. KAPITULUA

Langileria

10. artikulua

Ordenantza hauetan jasotakoa betetzeko, beren lanpostuaren hizkuntz eskakizuna derrigorrezkoa duten Zarauzko Udaleko eta bere menpe dauden erakundeetako langileek, bere lana euskaraz burutzeko gauza izan behar dute.

11. artikulua

Horretarako Zarauzko Udalak, Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretua, Euskal Funtzio Publikoaren Uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta Urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren ildotik, Udaleko eta Udalaren menpeko erakundeetako lanpostuen hizkuntz eskakizunak definitu eta onartzen ditu, Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiaren oniritzia jaso ondoren, eta lanpostu zerrendan jasotzen ditu, lanpostuetan jardun ahal izateko ezinbesteko baldintza izango direlarik.

12. artikulua

Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuko 12. artikuluan xedaturiko bost helburu mailakatuetakos boskarrena hartzen du beretzat Zarauzko Udalak. Zerbitzu eta Administrazio Atal guztiak bere jarduna-osorik elebietan burutzeko gai izango dira, beraz.

13. artikulua

Aurreko atalean esandakoari jarraiki, aipatutako boskarren helburu mailakatu lortzeko, plangintza egokia hezurmamituko du Zarauzko Udalak HAEErekin elkarlanean. Plangintza horretan zehaztuko dira langile bakoitzak bere lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna lortzeko jarriko diren bitartekoak, lehentasunak, epeak eta formazio programak.

14. artikulua

Euskara Zarauzko Udalean eta bere menpeko erakundeetan zerbitzu hizkuntza ezezik, lan hizkuntza ere izango denez, dagokien hizkuntz eskakizuna jadanik betetzen duten lengileek euskaraz burutuko dute beren lana. Gainontzekoek euskalduntze plangintzan aurrera doazen heinean, bere lana piskanaka-piskanaka euskaraz burutzeari ekingo diote, dagokien hizkuntz eskakizuna eskuratzean erabat euskaraz jardungo dutelarik.

Udal langileek egindako testuak gazteleratzea Itzulpen Zerbitzuari dagokio, eta halakorik ezean Euskara Zerbitzuari. Kasu berezitan bakarrik eskatuko zaie itzulpena langileei berei.

15. artikulua

Udalak langileen esku jarriko ditu behar diren lexiko hiztegi, terminologia zerrenda, aldizkari eta liburu espezializatu eta gainerako dokumentu, inprimaki eta ereduak. Era berean, Euskara eta Itzulpen Zerbitzuen aholkularitzaz ere baliatu ahal izango dira langileak.

16. artikulua

Zarauzko Udalean eta bere menpeko erakundeetan lekualdaketaz, igoeraz, transferentziaz nahiz beste edozein bidez, hizkuntz eskakizuna derrigorrezkoa duen lanpostu berri batera heltzeko, ezinbesteko baldintza da lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna betetzea.

Barne gorapeneko kasuetan Ezarpen Data 1994ko abenduaren 31a izango da.

17. artikulua

Hizkuntz eskakizuna derrigorrezkoa duten Zarauzko Udaleko eta bere menpeko erakundeetako lanpostuez, funtzionari nahiz lan errejimenpean jabetu ahal izateko, nahitaezkoa izango da lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatzea.

Derrigorrezko eguna duten 4. hizkuntz eskakizuneko lanpostuetarako hautaketetan, eta horiek betetzeko prozesuetan izangai batek ere egiaztatzen ez badu, lanpostu horri 3. hizkuntz eskakizuna ezarriko zaio, baina deialdi horretako lanpostua batetzeko baino ez da izango.

Hizkuntz eskakizuna betetzen duenik ez balego, hutsik geratuko da plaza, berriro deialdia egiteko.

V. KAPITULUA

Herritarrekiko harremanak

18. artikulua

Herritar euskaldunei zuzendutako komunikazio, jakinarazpen, gutunak, etab., euskaraz egingo dira.

Gainontzean elebietan zuzenduko dira, beti ere euskarari lehentasuna emanaz.

19. artikulua

Zarauzko Udalak, pertsona fisikoek zuzentzen dizkioten komunikazioak euskaraz nahiz gaztelaniaz onartuko ditu, eta baita, hala dagokionean, berriemailearen lurralde hizkuntza ofizialean eginikoak ere.

20. artikulua

Inprimakiak euskaraz eskainiko zaizkie herritarrei. Norbaitek gazteleraz eskatuko balitu, euskarari lehentasuna ematen dioten inprimaki elebidunak eskainiko zaizkio.

21. artikulua

Ziurtagiriak eta eite bereko dokumentuak euskaraz egingo dira herritar euskaldunentzat. Gainontzean elebietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

22. artikulua

Espedienteen kopien luzapenak euskaraz edo-ta elebietan emango dira, Udalean euskararen normalkuntza aurrera doan einean.

23. artikulua

Udal langileak, normalean, euskaraz zuzenduko zaizkie herritarrei bere ahozko harremanetan. Hala ere, herritarrek ondoren egiten duten ahozko hizkuntzaren aukera librea errespetatuko dute jarraitzerakoan.

24. artikulua

Zarauzko Udalak izenpetzen dituen kontratazio dokumentuak euskaraz idatziko dira. Beste parteak hala eskatuko balu ele bietan idatziko dira.

25. artikulua

Udalak, herritarrei eskainitako zerbitzuren bat enpresa pribatu baten bidez eginez gero, honekin egindako kontratuan ezarriko dira hizkuntz eskubideak babesteko neurri egokiak, eta baita jarraipenerako baliabideak ere.

VI. KAPITULUA

Erakundeekiko harremanak

26. artikulua

Zarauzko Udalak Euskal Herriko lurralde esparruaren barruan dauden beste administrazio publikoei nahiz erakunde ofizialei zuzentzen dien dokumentazioa euskaraz idatzia bidaliko die.

27. artikulua

- a) Euskal Herriko lurralde esparruaren barnean kokatuta dauden Administrazio Publikoek nahiz Erakunde Ofizialek Zarauzko Udalarari zuzentzen dioten dokumentazioa euskaraz iritsi dadin eskatuko du Udalak.
- b) Goiko atalean dioena bete ezean, euskara ofiziala den eremuan kokatuta dauden Administrazio Publiko nahiz Erakunde Ofizialei dokumentazio hori itzuli egingo zaie, atzera berriz euskaraz idatzia bidal dezaten eskatuz.

28. artikulua

Zarauzko Udalak, Euskal Herriko lurralde esparrutik kanpo dauden Administrazio eta Erakundeetara zuzentzen dituen dokumentuak euskaraz eta dagokion hizkuntzan bidaliko dira, beti ere euskarari lehentasuna emango zaiolarik.

29. artikulua

Zarauzko Udalak euskaraz idatzitako dokumentuak Euskal Herriko lurralde esparrutik kanpoko Administrazio Publikoetara bidali behar direnean, euskaraz eta dagokion hizkuntzan bidaliko ditu, euskarari lehentasuna emanez.

VII. KAPITULUA

Erregistroa

30. artikulua

Udalaren Erregistro Administrazioetan idazpenak euskaraz egingo dira, edozein delarik ere aurkeztutako dokumentuan erabilitako hizkuntza, beti ere dokumentuaren estrakto edo aipamena dokumentua egon dadineko hizkuntzan egongo delarik.

VIII. KAPITULUA

Iragarkiak, bandoak, oharra, argitalpenak...

31. artikulua

Idatzizko nahiz ikustentzutezko komunikabideetako iragarkien bidez egiten den Udal-jardueraren publizitatea elebiduna izango da, euskarari lehentasuna emanez, 3/1 proportzioa erabiliz ahal den guztietan.

32. artikulua

Aldizkariak, kartelak, oharrak, bandoak, propaganda eta, orohar Udalaren argitalpenak hizkuntza bietan argitaratuko dira, euskarari lehentasuna emanez, 3/1 proportzioa erebiliz ahal den kasu guztietan.

33. artikulua

Erabilera zabala duten oharrak, txartelak etab., piktogramen ondoan azaldu eta komunikazioa ziurta daitekeenean, euskaraz idatziko dira.

IX. KAPITULUA

Iharduera publikoak

34. artikulua

Zarauzko Udalak antolatzen dituen hitzaldi eta ikastaroak euskaraz izango dira posible den guztietan.

35. artikulua

Zarauzko Udaleko kargu politikoak euskaraz arituko dira normalean, ahoz nahiz idatziz, Udalaren ekintza publikoetan beren kargua dela eta parte hartzen dutenean. Gazteleraz ere jardun behar badute, euskara lehenetsiko da.

X. KAPITULUA

Euskararen erabileraren sustapena Udalerrian

36. artikulua

Hiru dira euskararen erabilera Zarauzko Udalerrian normalizatzeari dagokionez, Udalak bere gain hartzen dituen helburu nagusiak: euskaraz dakiten herritarren kopurua ugaritzea, euskaraz dakitenen nahiz ikasten ari

direnen euskararen erabilpena gehitzea eta euskara gero eta gizarte funtzio zabalagoetara hedatzen lortzea.

Hori horrela delarik, euskaraz dakitenen hizkuntz ohiturak aldatzearen aldeko saioak burutuko ditu Udalak modu iraunkorrean, nola bere ekimenez, hala bere gaineratik dauden erakunde eta herritarren arteko bitartekotza eginez.

Era berean, erabilpena bultzatu eta gehitzearen, eta gaurko erabilpen esparruak ugartzearen, ahalegin berezia egingo du, euskaraz hitz egiten dakitenak alfabetatu daitezzen.

37. artikulua

Zarauzko Udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi eta erreken izendegi ofiziala eta, orohar, toponimoak, Zarauzko Udalak finkatuko ditu bere eskumen esparruan, dagokion erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera.

38. artikulua

Udal-dependentsia eta Udal-zerbitzuek euskarazkoa izango dute izen ofiziala. Dependentsia eta Zerbitzu hauetan, kanpoan zein barnean dauden errotilu, txartel eta bestelako adierazleak euskaraz idatziko dira.

Era berean, Udalaren jabegopeko ondasunak (inmuebleak, ibilgailuak eta tresneria) adierazten dituzten inskripzio edo errotilu guztiak ere euskaraz idatziko dira.

39. artikulua

Udalaren kompetentziapekoak diren trafiko seinale eta iragarpen guztiak euskaraz idatziko dira, eta hala egiteko eskatuko zaie eskuhartzen duten erakunde guztiei. Ulergarritasuna bermatzeko beharrezkoa baldin bada, piktogramak ere erabili ahal izango dira, euskarazko testuen aldamenean.

40. artikulua

Zarauzko garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpen guztiak euskaraz edo ele bietan (euskarari lehentasuna emanez) egin daitezten neurriak hartuko ditu Udalak, pertsonalaren, errotulazioaren eta publizitatearen arloan bereziki eraginez. Era berean, Zarauzko Udalerrian abiapuntua edo geralekua duten garraio publikoetako arduradunei gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.

41. artikulua

Euskara gizarte-esparru guztietan erabil dadin eta orohar, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehitu dadin, neurri egokiak hartuko ditu Udalak bere jarduketa esparruan.

- a) Kultur, Kirol eta aisi elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Zarauzko Udalaren dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gazteleraz (euskarari lehentasuna emanez), idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte. Propaganda ere, bai ahozkoa, bai idatzizkoa, horrela egin beharko dute, eta baita ospakizun konkretuetan bozgoragailu bidez ematen dituzten mezuak ere.

Dirulaguntzak eskuratzeko baldintzetako bat izango da guzti hori eta dirulaguntza-hartzaileek, hau jasoko badute, derrigorrez bete beharko dute.

- b) Udal-instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere, aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko dira. Udalak, beraz, pilotalekua, hesiak, oholtzak eta zernahi udal-instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntz baldintza horren berri emango die interesatuei, hauek derrigorrez bete beharko dutelarik, fidantza itzul dakien.
- c) Herriko festetako barraketako idatzi, iragarki eta txartelak euskaraz edo euskaraz eta gazteleraz (euskarari lehentasuna emanez) emango dira ezagutzera eta, beraz, barrakak muntatzeko baimena emateko baldintzen artean hori ere eskatuko da, eta hala jakin eraziko zaie barrakariei, fidantza itzul aurretik baldintza hori bete dela egiaztatu beharko dutelarik.

42. artikulua

Establezimenduetan kanpora begira jartzen diren eta bertako jardueraren berri ematen duten inskripzioak euskaraz edo euskaraz eta gazteleraz idatzi beharko dira. Euskaraz bakarrik jartzen dituen establezimenduaren titularrak haren kostuaren %50eko dirulaguntza jasoko du. %50 horrek gehienezko muga bat izango du, Udalak urtero zehaztuko duena, urte hasieran egindako deialdiaren bidez.

Kanpora begirako inskripzioetan izena, deitura edo izen-deitura besterik agertzen ez denean, ez da dirulaguntzarik jasoko.

Dagokion baimenaren jakinerazpenarekin batera, artikulua honetan xedatutako dirulaguntzen berri emango zaie interesatuei, eta beren inskripzio horiek euskaraz jar ditzaten gomendatuko zaie.

Artikulua honetan eta aurrekoan xedatutakoak betetzeko doan eskainiko ditu Udalak bere aholkularitza zerbitzuak, eta horrela jakinaraziko zaie interesatuei.

43. artikulua

Euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal izan daitezen, gizarte bizitza euskalduntzeko saio bereziak egingo ditu Udalak, bai sektore desberdinak euskalduntzeko prozesuak bultzatuz, bai haur, gazte eta helduentzako kultur eta aisi ospakizun euskarazkoak antolatuz.

Era berean, euskarazko kreaioa indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, bidezko irizten dituen zenbait ekintza burutuko ditu Udalak: zarauztarrek euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak direla, literatur lehiaketak direla etab.

44. artikulua

Zarautzen ematen den irakaskuntza ez unibertsitarian, euskarazko irakaskuntza orokortu dadin saio bereziak egingo ditu Udalak.

Era beran, eskola mundua eta eskolumeen arteko giroa euskalduntzeko jarduera osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak. Guzti hori ikastetxeekin harremanten burutuko da.

Artikulu honetan xedatutakoa, Udal Eskola Kontseiluak eramango du aurrera.

45. artikulua

Udal Euskaltea sortu zenetik hona egin den bezala, helduen euskalduntze alfabetatzerako eskeintza publikoa egiten jarraituko du Udal honek.

XI. KAPITULUA

Ordenantzaren segimendua eta hizkuntz normalizaziorako azpiegitura

46. artikulua

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako etorkizunean har daitezkeen neurrien zuzendaritza eta segimenduz udal organu politikoak arduratuko dira.

47. artikulua

Udal organu politikoei dagokie Udalaren hizkuntz normalizaziorako erabakiak proposatu, eztabaidatu eta hartzea. Euskara Zerbitzuaren zeregina da, aldiz, erabaki eta programa horiek hezurmamitzea eta beraien zuzendaritzaz eta jarraipenez arduratzea.

Era beran, euskara Batzorde Informatzailea Zarauzko herrian euskararen normalizazio lanetan dihardutenen elkarlanerako gunea izango da.

48. artikulua

Zarauzko udal organu politikoek zehaztutako ildotik, Euskara Zerbitzu Teknikoa eta Itzulpen Zerbitzua izango dira euskaraz egindako lanen prestaketa eta gainbegiraketaz arduratuko direnak.

49. artikulua

Ordenantza honen aplikazio eta garapenean eta hizkuntz normalizaziorako jardun orokorrean hizkuntz politikaren eskumena duten erakundeekin elkar lanean arituko da Udala.

Xedapen Gehigarriak

Lehenengoa.- Zarauzko Udalak sortu edo-ta bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntz normalizazioaren ikuspegia kontutan hartu beharko da, eta Udaleko Euskara Zerbitzua izango da, beti ere, Ordenantza honen eta indarrean dagoen araudi juridikoaren ildotik, hizkuntz normalizaziorako ikuspegiaren presentzia berma dadin informatuko duena, Udal Zerbitzu eta Departamentu guztiek txostena eman dezan eskatu beharko diotelarik aipatu Zerbitzuari. Guzti hori, erabakia, dagokion udal organuak hartzeko kaltetan gabe.

Bigarrena.- Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenek, Ordenantza honetan jasotako xedapenak bereganatu egin beharko dituzte, beraiei dagokien guztian.

Hirugarrena.- Udalak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantza honen emaitzen azterketa eta Ordenantza beraren berrikuspen orokorra egingo du indarrean sartu eta bost urtetara, euskararen normalizazioari buruzko legeria edo arautegi orokorraren nahiz egoera soziolinguistikoaren aldaketaren ondorioz, edo-ta bestelako edozein arrazoirengatik lehenago berrikusteari egoki ez baderitzo.

Xedapen Derogatzailea

Baliorik gabe geratzen dira Ordenantza honen maila berekoak edo txigiagokoak izanik, Ordenantza honetan xedatutakoarekin bat ez etorririk, kontrajarrita dauden erabaki guztiak.

Azken Xedapena

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezko diren xedapen eta programa berezi eta xehetuak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko organu exekutiboek.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza hau, hasierako izaeraz, 1993ko martxoaren 25ean egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 1993ko martxoaren 30ean
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza hau, behin-betiko izaeraz, 1994ko irailaren 29an egindako osoko bilkuran onestu zela, eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 1994ko urriaren 20an (zk. 129) argitaratu zela.

Zarautzen, 1994ko urriaren 23an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza honen 42. artikulua aldaketa, hasierako izaeraz, 1998ko martxoaren 10ean egindako osoko bilkuran onestu zuela Udaltzarrak.

Zarautzen, 1998ko martxoaren 14an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, jendurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Ordenantza honen 42. artikulua aldaketa behin-betiko onestuta geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 1998ko ekainaren 26an (zk. 119) argitaratu zela.

Zarautzen, 1998ko ekainaren 30ean
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza honen 42. artikulua aldaketa, hasierako izaeraz, 2003ko urtarrilean 30ean egindako osoko bilkuran onestu zuela Udaltzarrak.

Zarautzen, 2003ko otsailaren 3an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, jendurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Ordenantza honen 42. artikulua aldaketa

behin-betiko onestuta geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 2003ko maiatzaren 21ean (zk. 94) argitaratu zela.

Zarautzen, 2003ko maiatzaren 22an
Idazkaria